

# Adimen urritasuna zuten ikasleekin lehenengo hezkuntza esperientziak Euskal Autonomi Erkidegoan. Bilakaera historikoari buruz zenbait ohar

*Karmele Aranguren Garayalde*

Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola

**GAKO-HITZAK:** Hezkuntza. Ezgaitasun intelektualak. Eskolak. Historia. Euskal Herria.

## 1. SARRERA

Jorratuko dugun gai honi buruz gaur egun dagoen ikuspegia ez da beti berdina izan. Aitzitik ikuspegi hori aldakorra da, eta oraingo egoerak badu bere lehenaldia eta bere gerokoa; geroko hori diseinatu gabe dago oraindik ere, eta geuk ere parte hartuko dugu zeregin horretan, zeren giza kolektibitateak baitira historiaren egileak.

Europar esan daiteke Hezkuntza Berezirako oinarriak jarrita zeudela XIX. mendearen hasierarako, zentzu hertsienean Hezkuntza Bereziaren kontzeptua geroago agertu bazen ere, XIX.aren amaieratik XX. mendearen hasiera bitartean. Mende horretan (XIX), biomedikuntza izan zen gailendu zen ikuspegia. XIX. mendeko lehen urteetan, medikuek ahaleginak eta bi egiten zituzten ospitaleko anabasa zertxobait antolatzeko. Gaixoak sailkatu beharra zegoen, eta eromenaren definizioa berraztertu zenean paziente haietako batzuk kalera atera ziren.

XX. mendearen lehen hamarkadetan adimen urrikoei ematen zitzaaien tratua ez zen ia samurtu, hein batean eugenisten<sup>1</sup> aldarriak nolabaiteko

---

<sup>1</sup> Eugenesia: mugimendu hau XX. mendearen hasieran garatu zen. Galton, Goddard eta beste batzuk izan zituen bidegile. Eugenesiak behe-adimendunen ugaltzea galarazi nahi zuen, ondorengo belaunaldietako giza espezieak hobera jo zezan. Horren tresna ugaltzeko

oihartzuna lortu zuelako, eta bestetik atzeratuekiko mespretxua aski hedatua zelako. Salbuespen gisa, hiri handiren batean haur atzeratuentzako gelak ireki ziren eskola publikoetan. Zorionez, ikerketa zientifikoei esker lehen pausoak eman ziren arazoaren zergatiak ulertze aldera. Gero eta argiago ageri zen atzerapenak arrazoi eta maila asko zituela, eta diagnostikorako irizpideak bateratu ahala (neurri batean adimen testeiei esker) berariazko ikasgela gehiago ireki ziren.

Bizkaiak 1894 tik Hezkuntza Bereziko Institutio batekin kontaktzen zuela adieraztea oso interesgarria da, «Itxu eta Gormutuen ikastetxea». Espainiako hoberenetako bat zen, hain zuzen ere. Bilboko Deustuko auzoan kokatuta zegoen.

1905. urtean eraikinaren obrak bukatu ziren (Erakunde Publiko eta familia dirudunen donatiboei esker) eta merezitako instalazioak izatea lortu zuten, ezer ez faltatzea izan zen helburua: argindarra, altzariak, garbigailuak, jantokietan marmolezko mahaiak, ohe onak, jaki-gordailu edo despentsa eta bainu eta dutxa hidroterapikoak egitea ere planifikatu zen.

Han bizitza aktiboan integratzeko helburuarekin, ezgaitasun sentsorialak zituzten pertsonekin lan egiten zen formakuntza praktikoa eta erabilgarriari esker; zurgintza, apaindura teknikak, igeltsu lanak, musika, txistu, tanboril, marrazketa eta abar.

Ondoren, konprobatuko dugun bezala, adimen urritasuna zuten ikasleak hezkuntza instituzioak bere zerbitzura izan arte urte asko igaro behar izan ziren. Hauek XX. mendea bukatu arte asiloetan, psikiatrikoetan eta familiarekin bizi ziren.

Aztergai dugun garaia bi tartetan bereiziko dugu: lehena 1982. ra artekoa izango da, eta bigarrena ordutik honakoa. Espainian eta Euskal Herrian, eskola-integratzaileko lehen saioak 1982an egin ziren. Prozesu berri hori ez zen guztiz zabaldu 1985era arte.

## 2. HEZKUNTZA-LAGUNTZA 1982 ARTE

Esan daiteke Europako laguntza-ereduak, eta beraz hemengoak ere, arazoak zituzten pertsonak babes-etxeetan sartzea izan zirela.

Derrigorrezko hezkuntza zabaltzeak agerian utzi zuen eskolatutako haur asko laguntza beharrean zeudela. Herrialde gehienetako Osasun eta Hezkuntza ministroak esku hartu beharrean geratu ziren.

Azpitarratzekoa da Babes Elkarteen eragina (Famili Elkartek), gogoz bultzatu baitzituzten beren herrialdeetako administrazioak adimen urriko

---

gaitasuna zuten atzeratuak gizartetik bereiztea edo antzutea izan zitekeen (1907an, Indiana estatuak antzutearen aukera onartu zuen, eta ondoren beste horrenbeste egin zen estatu gehiagotan, antzutea lege bihurtzeraino-1927).

pertsonen alde, hainbat mendez pairatutako bazterkeriatik salbu gera zitezen, hain zuzen ere.

*«Medikuntza eta Pedagogia elkartzen dira eta bat datoz subnormalari heziketa ematearekin eta pertsona hori gizarteko partaide eta eragile bihurtzearekin» (Gaur, 1973: 30).*

Argi dago, bestalde, gizartean ere aldatuz zihoala adimen urrikoen gaineko ikuspegia.

*«Zalantzarik gabe, buru atezera penaren jatorria aurkitzeko ikerketek eta horien hedatzeak (hedatze geldoa, hori ere esan behar) ondorioak izan zituzten gizartean. Ordurako gauza jakina zen herentzia, alkohola, sifilisa eta enparauak ez zirela adimen urritasunaren arrazoi bakarra, baina bereziki ohartzekoa da burgesia liberalak, bera ere arazoak ukitua, noski, ez zuela garai feudaletako tratamendua onartuko. Horiek horrela, gaiari buruzko adierazpenetan bada ere, jarrera «onberagoa» zabaldu zen adimen urrituengana, adimen urrikoa besteren hobenetatik salbuetsi eta giltzapetik aterarazi nahian. Izen handiko artistak, politikari ospetsuak edo inolako akatsik ez zeukan burges zorrotz horrek argi esango zuen, lotsarik gabe eta batzuetan ia harrotasun puntu batez, bere seme-alabetako bat subnormala edo «besteen desberdina» zela» (Gaur, 1973: 33).*

Hala ere, «adimen urrikoa gizarteratzea» planteatzen zen arren, nahi horretan ez zen sumatzen, inondik ere, pertsona hori gizarteko eragile bilakarakteko asmorik, xedea ez zelako adimen urrikoa benetan gizarteratzea, baizik eta haren gurasoak lehengo pentsaerak leporatzen zien erru-zamatik askatzea.

Hasieran, orduko «ikusmolde berri» hark haurren pare jarri ohi zuen adimen urriko pertsona, berau gizartearentzat izakirik garbiena eta errugabeena zenarekin konparaturik erruduntasun ilun hura desagertuko zitzaio-lakoan, nonbait. Ez zen harritzekoa, hartara, honelako testoak ere irakurtzea: «*Duela egun batzuk, eta gai honetaz mintzo, apaiz batek, famili elkarte mugimendu honetan ibilitakoa, Jainkoaren bedeinkapena gisa ere har zitekeela esan zidan, izaki horiengan luze-luze irauten duelako haurren garbitasunak*» (Gaur, 1973: 39).

Beste batzuetan aingeruekin konparatzen zituzten, beharbada uste zelako haurra ez zela guztiz garbia edo errugabea: «*aingeruak [dira], oraindik ere beren anfora hautsien barnean ezkutatzera behartuak*» (Gaur, 1973: 39). Horrelakoak eta gehiago ere («itxaropenaren profetak») esaten ziren haietaz, edergarri berri horiekin jantzirik gizarteak errazago «onartuko» zituelakoan.

Ideologia honekin, 1971n Espinasek «El nens que sempre seran nens. Contes per a nois i noies» liburua plazaratu zuen.

Gauza onik izatekotan, mugimendu horrek nolabaiteko lasaitua —ez handiegia segur aski— ekarriko zien familia nahigabetuei; berekin zeka-

rren ikusmolde berriak, «integrazioak», adimen urrikoa errespetarazten zion gizarteari, ez zelako gaiztoa, ezta bekatuaren ondorena ere... Baina planteamendu ustela zen, ezerezean geratuko zena, azken batean betiko bazterkeriaren agerpen berria zelako. Zerbait lortzekotan, publizitate kanpaina eztingarriek agerian erakutsiko zuten arazoa, eta jendeak sos batzuk emango zituen «haur gizajo horien aldeko» diru-bilketetan. Irudi hutsala zen ordea, ezer gutxi iraungo zuena.

Zorionez, halabeharreko aldaketa zetorren, eta gaur egun eskubide guztiak dituzten pertsonak dira, herritar osoak.

## 2.1. Adimen Urrikoentzako hezkuntza-laguntza Gipuzkoan

Gipuzkoan 1962 tik adimen urrikoek zerbitzu espezializatuak jasotzen zituzten. 1973ean «Gaur txostena: adimen-urritasunaren arazoa Gipuzkoan» ikerketa lana plazaratzea erabaki zen.

Gipuzkoako Atzeratuen aldeko Elkarteak eta San Miguel Patronatuak herrialde mailako ikerketa bat egiteko eskatu zioten Gaur taldeari. Mandatua betetzeko bi urtez jardun zuten lanean, eta behar beste baliabide izan zituzten ikerketa egiteko, enkargua eman zietenek irizpideak eta datuak bildu nahi zituztelako beren lana eta erabakiak gerora begira bideratzeko. Aurrera egin nahi zuten, gizarteak atzeratu mentalaren irudikapen psikoa-fektiboa gañditu zezan, eta horretarako beharrezkoa ikusten zen epe labur zein luzerako planak edukitzea.

Txosteneko gai ugarien artean, adimen-urritasunaren gorabehera historikoak aztertzen ziren, oso azaletik izan arren, hein batean ez zelako hori ikerketaren helburua, eta batez ere —hala adierazi zuten egileek— informazio iturriak urri eta eskuragaitzak zirelako:

«Ikuspegi historikorik gabe, zeren ez baitugu horrelakoen arrasto idatzirik aurkitu, pentsatzekoa da Gipuzkoan adimen-urritasunaren inguruko gorabeherak Europako bertsuak izan zirela. Gipuzkoak ere legendarrak eragindako izua ezagutu zuen (herrialdeko artxibo batzuek 1530-31ko izurriteari buruzko agiriak dituzte), eta XVI. menderako bazituen ospitaleak eta babes-etxeak. Udaleko aktetan ageri denez, 1577an Tolosak karitate-etxea zeukan; *Ordiziak ospitalea zuen 1516an, Elgoibarren ere bost ospitale zeuden mende berean, eta Azkoitiak, Zumaiak eta beste herri batzuek babes-etxea zeukaten... Segur aski horrelako zentroetan arlosteak, buru-gaixoak, zaharrak, adimen urrikoak eta abar biltzen zituzten. XVIII. mendean, Frantzia edo Ingalaterrakoa bezalako bilakaera demografikoa ez izan arren, Euskal Herria ere sartua zen, hein batean, orduko «Zaldi Potentziaren Europa» hartan, eta iritsiak zitzaizkion horren ondorioak ere. 1798an Kalagorriko Gotzainak zurtzegi bat ireki zuen Arrasaten, eta 1803an, Bergarako Batzar Nagusiek hala erabakita, mota bereko egoitzak sortu ziren Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Arrasaten. Azken herri horretan eraiki zen, hain zuzen ere, lehen zentro*

*psikiatriko handia. Gesalibarko bainuetxeak nahiko galdua zuen lehengo ospea, hantxe hil zutelako, 1897ko abuztuaren 8an, Cánovas del Castillo; hurrengo urtean, 1898an, eroetxe gisa egokitu zuten. Bestetik, guztiz egia da Santa Agedan sartutako zahar gaixoak, oligofrenikoak eta dementeak Ospitale Orokorrean bezalaxe zeudela, xvii. mendea aspalditxo joana zen arren. Izan ere, 1965ean, harako bisita batean, Gipuzkoako Atzeratuen aldeko Elkarreak, zuela gutxi eratuak, koadro klinikoak benetan etsigarria zeukaten oligofrenikoak ikusi zituen bertan. Hori zela eta, oligofreniko sakontzako zentro bat eraikitzea edo egokitzea erabaki zen». (Gaur, 1973: 30-31).*

Santa Agedako erietxe psikiatrikora egindako agerraldian, Elkarteko kideek berta-bertatik egiaztatu zuten buru-gaixoeak eta adimen urrikoek etorkizun bera zeukatela artean ere. Hara joandakoen hitzetan, patioetan eta pabilioietako ohe-lerro luzeetan ikusten ziren aurpegiak eta atzeratu sakontzako zentroetan zeudenenak berdin-berdinak ziren. Medikuen iritziz, oso zitekeena zen bertan sartutakoen %50 oligofrenikoak izatea.

*«Norbaitek zalantzarik bazuen eroetxe hori giltzapeko lekua ote zen, nahikoa da esatea hango 1770 gaixoentzat 7 mediku psikiatra baino ez zeudela, hau da, mediku bat 253 gaixoko, eta noski, aparte beste lanpostuak izatera behartuak zeuden» (Gaur, 1973: 43).*

Gipuzkoako adimen urrikoentzako lehen eskola, Zorroagako atzeratuentzako eskola, 1948an fundatu zen, Zorroagako Laguntza-zentroetako pabilioi batean (Zorroagako Babes-etxea). Han Gipuzkoa osotik etorritako 25 pertsona hartu zituzten, gehienak barnetegi erregimenean. Zentroaren aurrekari gisa, bi urte lehenago (1946) Mirakruz kaleko 32an pisu bat moldatu zen adimen urrikoiei laguntza emateko. Gipuzkoako Aldundiaren partez hori izan zen dementeak eta oligofrenikoak elkarrengandik bereizteko aurreneko saioa.

*«Esan daiteke, hutsik egin gabe, Zorroagako eskolan oinarritzko zainketak baino ez direla ematen, eta zentroko langileak gogo onenaz ahalegintzen badira ere, han ia ez da psikopedagogiaren arrastorik antzematen» (Gaur, 1973: 335).*

Tratamenduak bereizteko bigarren saioa Santa Agedako Erietxe Psikiatrikoan gauzatu zen, Aldundiaren eskutik. Egoitzan aparteko sail moduko bat zeukaten adimen urriko nesKentzat; nolabaiteko bereizketa egiten zuten erietxean zeuden oligofreniko ugarien artean. Erietxeko lekaime bat eta zaindari bat arduratzen ziren pazienteen arretaz.

Administrazio publikoek ezikusiarrena egiten zuten arazoaren aurrean, eta, beraz, hortik ez zetorren inolako laguntzarik. Horiek horrela, familia batzuek, bakoitzaren bakardadea apurtzarren eta beren seme-alaben ongi-zatea ziurtatu nahian, bilera bat egin zuten haietako baten etxean, eta hortik

sortu zen Atzegi (Gipuzkoako Atzeratuen aldeko Elkarteak). Hona Atzegiren sortzaileetako baten hitzak, nahiko adierazgarriak:

*«Elkartea 1960ko abenduaren 28an sortu genuen. Bultzatzaileak, Josetxo Eguiak, adimen urriko anaia bat zuen, eta berak eman zigun Europako herrialde aurreratuenetako esperientzien berri» (Atzegi, 2000: 4).*

Geroago, 1962ko urtarrilaren 25ean, Udal Aurrezki Kutxak San Miguel Patronatua eratu zuen gizarte-ekintza gisa. Bai Aurrezki Kutxak bai Gipuzkoako Atzeratuen aldeko Elkarteak parte hartzen zuten Patronatuko Gobernu Batzordean.

Elkartearen eta Udal Aurrezki Kutxaren arteko lehen harremanak, haatik, 1960koak dira, Patronatua sortu baino bi urte lehenagokoak, eta horren haritik azterketa moduko bat egin zen Elkarteak zeukan zentro batez, Villa Careaga izenekoaz. Udal Aurrezki Kutxa ere tartean ibili zen, proiektuari zuzeneko nahiz zeharkako diru-laguntzak emanez, eta 1961eko ekainaren 27an onespenez eman zion asmoari, hori ere gizarte-ekintza gisa.

1966ko urrian Villa Uli-Azpi egokitzeke lanei ekin zitzaizkien, horiek ere Elkartearen kontura. Aldamenean Villa Careaga zeukan, San Miguel Patronatuaren lehen eskola.

1967an, Gipuzkoako Elkartearen San Pablo Zentroa inauguratu zen. Bertan lehentasuna eman zitzaizkien osasun arazo larriak zituzten haurrei, hau da, adimen urriko koadro larri bat ez ezik bestelako arazoak ere zeuzkate-nei. Zentroak 27 plaza zituen, eta herrialde osoa hartzen zuen jarduera-eremutzat.

Gainera, 1971n, Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak lehen Txolarte Kluba irekitzea erabaki zuen, adimen urrikoek beren gizartratzea bultzatuko zuten atsedenean eta astialdi leku bat eduki zezaten. Ohartu ziren, halaber, gainerako herritarren pare benetan jarriko baziren, pertsona horiek lanerako aukera izan beharko zutelako eskolaldia bukatutakoan, eta horren fruitu, 1975ean *Gureak* Tailer Babestuak (lehenbiziko Tailer Babestuak) sortu ziren.

Urteak joan ahala bestelako kasuak ere azaleratzen ziren, bazeudelako familiarik ez zuten edo familia desegituratuetan bizi ziren adimen urrikoak. Haietako lehen egoitza 1977an ireki zen, ordura arte bakarrik hartzen baitzituzten erlijiosoen komunitateetan edo psikiatrikoetan. Gaur egun, ordea, babespeko etxebizitzak daude, eta, zenbait kasutan, hortik ateratako bikoteek aurrera jarraitu dute.

Hezkuntzaren gaiari berriz helduz, gogoratzekeoa da hasieran tarteko zein maila handiko atzerapena zuten gehientsuak San Miguel Patronatuaren esku geratzen zirela, horretarako mugak 65 eta 25 bitarteko Adimen Koefiziente etan ezarrita. Patronatuak herrialdean zituen hamar eskoletako bakoitzak bere eskualdea zuen jardute-eremutzat, baina guztiek ez zituzten hiru ikasketa mailak: eskolaurrekoa, eskolakoa eta lanbide heziketa. Ira-

kaskuntzarako giza baliabideei dagokienez, eskolaurreko mailan maistra edo monitore bat zegoen, eskolakoan Pedagogia Terapeutikoan espezializatutako maistra «nazional» batzuk, eta Lanbide Heziketan maistra monitore bat, industri maisu bat edo tailerreko monitore bat.

Hauexek dira eskualdeetako eskolak:

- EIBARKO ESKOLA:** 1963an inauguratua. Mantenu erdiko erregimenarekin funtzionatzen du (35 ikasle).
- BERGARAKO ESKOLA:** 1964an inauguratua, hau ere mantenu erdiko erregimenduna (51 ikasle).
- IRUNGO ESKOLA:** 1964an inauguratua.
- ORDIZIAKO ESKOLA:** 1965ean irekia.
- PASAIKO ESKOLA:** 1967an sortua.
- ERRETERIAKO ESKOLA:** 1967ko abenduaren 4'an eskola gisa egokitutako pisu bat da.
- LEGAZPIKO ESKOLA:** 1968an sortua.
- AZPEITIKO ESKOLA:** 1968an inauguratua.
- TOLOSAKO ESKOLA:** 1971n sortua.
- MIRAMONGO ZENTROA:** Arlo teknikoez gain (beste eskolentzako aholkularitza zerbitzuak), bertan Patronatuko zuzendaritza taldea ere dago. Miramongoa Donostia aldeko zentroa zen, lehengo Villa Careagakoaren ordezkoa, eta hiru maila zeuzkan: eskolaurrekoa, eskolakoa eta lanbide heziketa. Zentroan eskolak hartzen zituzten 222 adimen urrikoetatik 63 barnetegiko erregimenean zeuden, eta gainontzekoak (159) pentsiodun. Guztira, zentroak Patronatuko ikasleen %45 inguru hartzen zituen.

Adimen urrikoen %57,1 (adina 6-20 urte bitartekoa eta Adimen Koekizientea 70etik gorakoa zituztenak) ez ziren Gipuzkoako ikastetxe berezietara joaten, arrazoi desberdinak zirela medio, hau da, ikastetxe arruntetara joaten zirelako, etxean geratzen zirelako, orduko zentroetan plaza librerik ez zutelako eta abar. Izan ere, Patronatuak atzerapen maila ertainekoak eta 0-22 urte bitarteko adinekoak soilik hartzen zituen berezko ikasletzat.

*«Gipuzkoan, atzeratuentzako eskolaurrea hezkuntza bereziko zentroetan hasi da; hortaz, normalek eta subnormalek ez dute heziketa elkarrekin jasotzen, edo behintzat ez dago helburu hori daukan hezkuntza-eredu zehatz edo berariazkorik» (Gaur, 1973: 295).*

Hala ere, Eguia doktorearen eta bere taldekoen iritziz, merezi zuen elkarrekiko hezkuntza-ereduarekin proba egitea, nahiz eta entseguak tamaina txikikoa beharko zuen; bestalde, bazegoen beste oztopo bat, hasterakoan pisu handia izango zuena: oinarria makala zen, ez zegoelako ez haurtzaindegirik ez langile trebaturik, proiektuaren euskarri izan zitekeenik. Duela 34 urte, bada, ondo jakitun zeuden zenbateko garrantzia zeukan eskolak

haurren adimen garapenean, eta, era berean, bazekiten beharrezkoa zela eskolatutako haurren ezaugarriak ezagutzea haientzako programak taxutu ahal izateko. Horregatik proposatu zen laguntza-talde espezializatuak eratztea, maisuekin elkarlanean ikasleen adimen maila eta nortasun-ezaugarriak azter zitzaten.

1971-1972 ikasturtean eta ondorengo urteetan, enpresa pribatu batzuek eta psikologoa zeukan ikastetxeren batek, testak pasatu zituzten Gipuzkoako zenbait eskolatan, beharbada Hezkuntza Lege Orokor Berriak 50. artikuluan zioenaren ildotik: «Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak behar diren baliabideak jarriko ditu eskuragarri, Hezkuntza Bereziaren beharra duten ikasleak antzemate eta diagnostikatze aldera».

Izan ere, errolda bat osatzea beharrezkoa ikusten zen aurreko beste agindu batzuetan, eta premiazkoa iruditu zitzairen 1970-1972ko txostenaren egileei.

Honaino azaldutakoa ulertzeko, gogoan izan behar dugu hezkuntza bereziak 100 urte baino gutxiagoko bidea egin duela hezkuntza sistemetan txertaturik, eta Estatu Espainolean derrigorrezko irakaskuntza publikoak 37 urte baino ez dituela.

Aurreko atalean esan denez, kontzeptuetan harrezkero gertatu diren aldaketen haritik, 1982 aldera lehenbiziko saioak egin ziren benetako eskola-integratzaile bidean, eta gaur egun adimen urriko ikasleek eskola arruntetan dihardute. Eskola berezi gehiengoak ateak itxi egin zituzten.

Horren adierazgarri, gaur egun adimen urria diagnostikatua duten Gipuzkoako eta beste herrialdetako ikasleen %93 gutxi gora behera eskola arruntetan eskolarizatuak daude, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren menpean.

## 2.2. Adimen Urrikoentzako hezkuntza-laguntza Araban

Gasteizen, 1962an, adimen urrikoen guraso batzuk harremanetan jarri ziren elkarrekin, beren seme-alaben alde lan egiteko asmoz. Guraso haiek, hamabost edo hogeit hamar inguruk, eskola bat bilatzen zuten haurrentzat, eta uztailearen 9an elkarte bat sortu zuten, hasieran AFASA izenarekin (Asociación de Familiares y Amigos de Subnormales). Berehala jarri ziren kontaktuan Valentzia, Bartzelona eta Donostiako kideko elkarteekin, eta arloko zenbait profesionalak ere eskolaren aldeko ahaleginetan lagundu zieten. Gurasoak eta laguntzaileak erakartzeko, haiengana banan-banan jotzea erabaki zuten; Félix Garaicoechea elkarteko lehen lehendakariak eta Julián Ortiz de Viñasprek antzeko arazoa zuten gurasoak bisitatzeko zituzten, eta beste batzuetan ekimenaren aditza zutenak ere haiengana etortzen ziren. Orduko gorabeheren erakusgarri, lehen «bulegoa» lehendakariaren familiak zeukan zapata-denda batean ireki zuten, Dato kalean, eta Garaicoecheak berak ondokoa erantzun zuen 1987ko elkarrizketa batean, galdetu



baitzioten zertan aldatu zen egoera hasierako garaietatik ordura arte, alegia, zer zen 62an adimen urriko haur baten gurasoa izatea eta zer zen elkarriketaren urte hartan:

*«Gogorra da adimen urriko haur bat izatea, lehen eta orain. Desberdina da, ordea, adimen urriaren gainean daukagun informazioa, hango garaian ez gurasook ez gizarteak ez genekielako zer zen hura, zer egin behar zen. Bakarrik genekien gure seme-alabek premia batzuk zituztela, eta horiei erantzun beharra zegoela. Gogor lan egin genuen ezjakintasunaren eta gizartean sumatzen zen mespretxuaren aurka borrokatzeko, eta, hain zuzen ere, lorpen nagusietako bat haur horiek kalera ateratzea izan zen. Gaur egun babesa handiagoa dute jaiotzetik bertatik; Elkartea daukagu; era askotako zerbitzuen eta baliabideen egitura bat dago herrialdean zabaldurik, Estimulazio Goiztiarretik hasi eta Babes Fundazioarekin bukatuta; medikuntzaren berrikuntzak eta aurrerapen teknikoak oso lagungarriak izan dira, eta gogoko egoera oraindik etortzeko dagoen arren, gizartearen jarrera nabarmen aldatu da». (Zuzendaritza Batzordea 1987: A.U. Elkartearen Memoria. Vitoria-Gasteiz. 3. or).*

1962an ere, Gasteizen FEAPS, «Federación Española de Asociaciones Protectoras de Subnormales» sortzea erabaki zen (APDEMA 1976. Estudio sobre la Deficiencia Mental en Alava).

Arabako lehen zentro pilotu espezializatua, Domingo Beltrán kalekoa, 1963an inauguratu zen, Gotzaintzak horretarako laga zuen txalet batean. Egokitzapen lanak egiteko mailegu bat eskatu zen, Zuzendaritza Batzordeko kideek berek abalatu.

Zentro pilotu horretatik «San José» zentroa jaio zen, 1964an, eta 1965ean Elkarteak bere lehen sozietate-egoitza ezarri zuen, Álava Jeneraleko 20ko 6.ean, 14. bulegoan; 1966ko urrian, PATRONATO «SAN JOSE» PROSUBNORMALES DE ALAVA izenekoa eratu zen, Arabako Aurrezki Kutxaren gizarte-ekimen gisa eta Udala, Hezkuntza Ordezkaritza eta Elkartea bera partaide zituela. Beraz, Patronatuak San José zentroaren ardura hartu zuen bere gain.

1967an Borderas doktorea laguntzaile hasi zen osasun aholkularitzan, eta 1968an Elkarteak bere lehen gizarte-laguntzailea hartu zuen. Urtebete geroago sozietate-egoitza La Paloma kaleko 8ra aldatu zuen, Udal Aurrezki Kutxak lagatako lokaletara; 1969an San José zentroko bi ikasle lanean hasi ziren Gasteizko Cegasa enpresan.

Urte horretan ere, adimen urrituentzako lehenengo denbora libreko zerbitzua eskatzeko gestioak egiten dira.

Lan batzordeak eratu ziren, adimen urriaren alderdi desberdinez eta Elkartearen gaiez ardura zitezen. Abenduan beste gizarte-laguntzaile bat hasi zen lanean, eta Adimen urrikoen aldeko Lehen Jaialdia antolatu zen.

1971n, Elkarteak APDEMA izena (Asociación Protectora de Deficientes Mentales de Alava-Arabako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkartea) hartu zuen, eta bere jarduera-eremua lurraldeko beste leku ba-

tzuetara zabaldu zuen, Amurrioko eta Laudioko ordezkariak irekiz; 1972an CADIA tailer babestua ireki zen, eta Laudion «Santa María del Yermo» ikastetxe espezializatua, biak San José Patronatuari atxikiak. Oiongo ordezkariak inauguratu zen.

1973an, Elkartearen menpe, «Madre Vedruna» eskolaurreko ikastetxea sortu zen, Moja Karmeldarrek Ramón y Cajal kalean utzitako lokaletan. Bertan elkarrekin ikasten zuten adimen urriko haurrek eta horrelako arazorik ez zutenek. Hango hura Arabako lehen integrazio saioa izan zen.

1974ko azaroan, Arkauteko Hezkuntza Bereziko Ikastetxea ireki zen, Aldundiak eta Hezkuntza Ministerioak osatutako Partzuergo baten bitartez. Geroago, 1981ean, zentro hori Pascual de Andagoya ikastetxera aldatu zen. Lekualdatze horren ondorioz piztutako eztabaida, bizi-bizia, hezkuntzaz besteko gaietara zabaldu zen, interesatuen kolektibotik kanpora ere.

1976ko azaroan, Sakonentzako Zentroa inauguratu zen Santiago kalean. Ekimen horretan Elkartek itzelezko ahaleginak egin zituen, eta Zerbitzuak berak gauzatutako lehen proiektua izan zen; 1978an, Apdemaren lokaletan, Hezkuntza Goiztiarreko Zentroa sortu zen, arazoak zituzten haurrei zuzendua, zehazki hiru urtera bitartekoentzat. Garai berekoak dira beste ekimen batzuk: Egoitzak; Gurasoentzako Eskolak; Aisia Zerbitzuak; Etxebidearen Sakonentzako Zentro berria, Uletako Gainean kokatua, eta Lakuako Hezkuntza Bereziko Zentroa; 1985eko urrian, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Babeserako Fundazioa eratu zen. Ordu-ra arte zegoenaren adierazgarri, nahikoa da esatea 1976an biziki kezka-garria gertatzen zela adimen urrikoen egoera, Araban antzemandako kasuetatik %37,94k bakarrik jasotzen zuten-eta laguntza, eta sakonen arazoak ere, larri samarrak, artean zeudela konpontzeko.

*«Berroztegiako Adimen Urriko Sakonen Zentroan eskola ematen zaie Arabako adimen urriko sakonei eta larriei, zehazki 6-14 urte bitartekoei. Zentroko 20 plazak beteta daude, eta erregimena mantenu erdikoa denez, barnetegiko erregimena behar duten adimen urriko sakonek ez dute han aukerarik; salbuespen dira 16 urteko adimen urriko larriak, gaur egun NTRA. SRA. DE LAS NIEVES Herrialdeko Egoitzan daude eta» (APDEMA, 1976).*

Jarraian, Arabak 1976an zeuzkan hezkuntza eta errehabilitaziorako zentroak zerrendatzen dira, Augusto Borderas Gastambide doktorearen hitzetan:

- San José Ikastetxea:** San José Patronatuaren menpekua eta Gasteizen kokatua. Mantenu erdiko erregimenaz gain, eguneko eskolak ere ematen dira. Bi atal ditu: eskolakoa eta tailer-aurrekoa, eta bien artean 100 plaza, orain denak beteak; 6-18 urte bitarteko adimen urriko arinak eta tartekoak hartzen ditu. Ikastetxe mistoa da.
- Sta. María del Yermo Ikastetxea:** Esan bezala, ikastetxe berezi hau, eskualde mailakoa, Laudion dago, eta mantenu erdiko erregi-

mena eta eguneko eskolak eskaintzen ditu. Tarteko adimen urrikoak hartzen ditu, 6-18 urte bitarteko neska-mutilak. Zentroak 60 plaza ditu.

- Amor Misericordioso Ikastetxea:** Menagarai (Araba). Esclavas de la Virgen Dolorosa erakunde pribatuarena da. Adimen urriko larriak edo tartekoak –6 eta 21 urte bitarteko neska- hartzen ditu barnetegi erregimenean.
- Arkauteko Zentro Espezializatua.** 1974ko urriaren 10eko Dekretuak sortua. Zentroak 32 unitate dauzka, guztira 384 ikasle inguru, mantenu erdian edo barnetegi erregimenean. Unitate horietako 8 hipokusikoentzakoak dira, 6 garuneko paralisia dutenentzakoak, eta besteak adimen urrikoentzakoak. Zentro honek laguntza eman nahi die adimen urriko arinei eta adimen moteldunei, «O.M.S.» ren sailkapen irizpideei eutsiz eta 6-18 urte bitarteko ikasleekin jardunez.
- Hezkuntza Bereziko Ikasgelak Erregimen Arrunteko Ikastetxeetan** (adimen urriko arinentzat, ahal den kasuetan).
- Gasteiz: «Zaramaga» eskoletako ikasgela berezia
- Herrialdea: Oionen, 2 ikasgela berezi «Príncipe de España» eskualde-eskoletan (APDEMA. Op.Cit. 46-49 or.)
- APDEMAren helburua adimen urrikoen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzea izanik, ondoko zerbitzu hauek eskaintzen ditu:
- FAMILIENTZAKO LAGUNTZA:** Jarduteko irizpideak eta presatuntza familientzat. Elkartasuna eta elkarrenganako laguntza bul-tzatzen dira.
- ZERBITZUEN KALITATEA:** Laguntza-zerbitzuen kalitatea bermatzeko baliabideak. Aukera berdintasuna aldarrikatzen da bizitzaren alderdi guztietan (hezkuntza, lana, etxebizitza, aisia).
- GIZARTEAREN MENTALIZAZIOA:** Helburua gure inguruko pertsonak eta gizartea bera sentsibilizatzea da, informazioa emanez eta adimen urrikoen egoeraz ohartaraziz.

### 2.3. Adimen Urrikoentzako hezkuntza-laguntza Bizkaian

Bizkaian, beste bi herrialdeetan bezala, hirurogeiko hamarkadan adimen urrikoak etxean sartuta zeuden, gainbabezurik edo behar bezalako zainketarik gabe, edo psikiatrikoetan sartuta.

1962ko azaroaren 11n, 250 pertsonako talde batek, adimen urrikoen gurasoek eta lagunek osatuak, Bizkaiko Atzeratuen aldeko Elkartearen —oraingo *Gorabide*— eratu zuen; 1963an «Ongintza Erakunde Partikularra» izaera onartu zitzaion, eta 1970ean «Onura Publiko»-ko erakunde izendatu zuten. Estatutuetan adierazten zenez, elkartearen helburu nagusia zen «herritarrei gizartearen eta familien arazo honetaz ohartaraztea» eta «laguntza zentroak sortzea», orduan ez zegoelako horrelakorik. Lehenbizi-

ko egoitza *Biblioteca de Buenas Lecturas*-en dendostean eduki zuen. Gerrogo Lersundi kalera aldatu zuten, eta ondoren Iparragirrera, 34ko 2. enera. Oraingo egoitza Poza Lizentziatuaren kaleko 14an dago, 2. pisuan.

Bilbon haur horientzako lehen ikasgelak Casillan zeuden, lehenengo umezurtzentzako zentro batean. Lekaimeen eraikin bat zen, eta atzealdeko ikasgela batzuk utzi zizkieten Bizkaiko Atzeratuen aldeko Elkarteari.

Ramón Zumárraga doktorearekin batera Rosario Ajuriaguerra, Patrocínio Izaguirre, Pilar Careaga, Aita Perez de Alba eta beste batzuk bidegile izan ziren adimen urriko haurren eskolatzean. Hasieran diruz estu samar zebiltzan, eta inoiz ere Zumárraga doktoreak bere poltsikotik ordaindu izan zien maistrei (Luisa Iturriaga, M<sup>a</sup> Teresa Tellaecha, Elvira Ruiz, Ana Zulueta...), monitoreei (Marina...) eta are Rosina Domingo zuzendariari, Valentziatik Pedagogia Terapeutikoa ikasia etorri baitzen. Hezigarri irizten zieten ikasleak hartzen zituzten, 10 edo 12 bat haur gela bakoitzean. Zentroko langileek ez zuten osasun aseguruirik, eta gaixotuz gero Zumárraga doktoreak berak artatzen zituen (haren seme Juanek ere adimen arazoak zituen), eta berdín egiten zuen beste guztiekin, nahiz eta bera birikietako gaitzetan espezializatua izan.

Ramón doktorea Elkarteko lehen lehendakaria izan zen, hasieran karguari uko egin arren. Izan ere, 1962ko martxoan azaldu zioten guraso talde batek bilera bat egin zuela beren seme-alaba atzeratuen aldeko Elkartean sortzeko asmoz, eta ideia bikaina iruditu bazitzaion ere, hango hartan doktoreak haxe erantzun zuen: «Ni prest nago orriak banatzeko, kartelak jartzeko, zernahi egiteko, baina ez kargu baten ardura hartzeko... Oso lanpeturik nabil, eta ahal dudan guztian lagunduko dut, baina nik kargurik ez».

Ez zuen zalantzarik arazoaren muinaz, eta horregatik galdetzen zion behin eta berriz bere buruari: «Zergatik egin eskolak, tailerrak... gure seme-alaba atzeratuentzat, besteentzat, seme normalentzat, ez genuen-eta horren beharrik izan?»

Doktorea hil ostean, EAAEk (AVPS) haren hitzak ekarri zituen gogora, 1977ko omenezko prentsa artikulua batean («DE SOLITARIOS A SOLIDARIOS»):

*«Bide benetan luzea ibili beharra dago oraindik duintasuna lortzeko, baina hori ere etorriko da, bai etorri. Ikusiko da orduan duela urte batzuk bakarka ari ginenok orain elkartasunak baturik sentitzen garela, Jainkoa lagun eta, antza, letra soil bat aldaturik.»* (Bizkaiko atzeratuen elkartearen aldizkarian 1977, 1. or).

Handik gutxira logopeda bat, soinketa irakasleak... eta beste kontratatu zituzten. Hasieratik ari zirenetako batzuek (Rosario Ajuriaguerra eta Miren Zuazua) esan zidaten haiek garai zailak izan zirela, baina gero gauzak dezentente arindu zirela. Horra, hain zuzen ere, orduko pasadizo bat: 1962an biak Parisera joan ziren, Batzar batera, eta Mirenek zer egin zuen eta eskuz kopiatu «mongoloide» bati buruzko tesina bat.

Orduan (1962) ez zegoen Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea Eus-kadin; hortaz, maistrak Iruñeko eta Bartzelonako ikastaro batzuetara joan ziren, gastuak ordainduta. Bartzelonan Perelló foniatra ospetsuaren ikastaroetara joaten ziren. Oso gizon ona eta bihozbera omen zen, eta denek hel-tzen zioten buru-belarri lanari, batzuetan 18 nerabeko taldeekin ere jar-dunez.

1968an, irakasle batzuek oposizioa gainditu zuten, eta lehenago ere, 1966-1967ko ikasturtean, Pedagogia Terapeutikoko lehen ikastaroa emana zen Bilboko Maisutza Eskolan. Ikastaroa egin zuten maistrek, 60 inguruk, Maisutza titulua zeukaten, eta haietako batzuk oposizioak eginak ziren; 1971-1972an Hizkuntza eta Entzumen Tekniketako lehen ikastaroa eman zen.

Ondoren eskola bat ireki zen Burtzeñan (Barakaldo). Eskolak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren txalet txiki batean ematen ziren, lekua gainezka beti.

Bilboko lehen tailerra, San Mameskoa, Boluetara aldatuko zen oso-osorik. Elkartearen ekimena bazen ere, hasiera-hasieratik jaso ziren Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzak. Tailer edo lanerako zentro hark, *Iturlan* izenekoak, 14 ikasleko taldeak zeuzkan pertsona bakoitzeko. Donostiako Careagan Barne Erregimeneko zuzendaria izan ondoren (1963-1967), Miren Zuazua San Mameseko Tailerreko zuzendaria izango zen 1968tik 1978ra arte, baina bere lan-ibilbide adoretua ez zen bertan amaitu, Boluetan jarraitu baitu lanean, orain gutxi erretiroa hartu arte.

Hasieran gizonentzako bazen ere, geroago San Mamesko tailerra emakumeentzat egokitu zen, hala erabaki zuelako Bizkaiko Atzeratuen aldeko Elkartek.

Kabiezeko (Santurtzi) Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak, hori ere Kutxak diruz lagunduak, 75 neska-mutilentzako plazak zeuzkan, eta horietako batzuentzat aurre-tailerra ere.

Sopuertan, halaber, Sakonentzako Zentro bat sortu zen, 50 ikasle barnetegikoak eta beste 10 egunekoak zeuzkala. Zuzendaria Pilar Auzmendi zen, Dimakoa bera.

Adimen urriko ikasleek hainbat lekutan hartzen zituzten klaseak: Indautxu Karmengo Amaren elizak 4 edo 5 ikasgela zituen, Labe Garaiek beren langileen seme-alabentzako ikastetxeak zituen, eta hainbat fundaziok eta ikastetxe erlijiosok ikasgela bereziak ireki zituzten, horietako bat, Udal Aurrezki Kutxarena, Barakaldoko Miranda Babes-etxean...

Gurasoen Elkartek ASBIDE Berariazko Zentroa sortu zuen Derion. Zentroak Pedagogia Terapeutikoko ikasgelak zituen «mugako»-tzat jotzen ziren haurrentzat, baina diru arazoak zirela-eta ez zuen jantokirik.

Haurrentzako Babes arduradunak, Aita Pérez de Alba psikologo eta fraide frantziskotarrak, kasuen balorazioa egiten zuen Herrialdeko Osasun Erakundearen.

Arazoak larriak zirenean, haurrak Avilako barnetegietara eramaten zituzten (orain Santanderrera joaten dira).

1972an, Rafael Barbier Aurrezki Kutxako Zuzendari Nagusia bitarte, Sondikako *Ola* Hezkuntza Bereziko Institutua fundatu zen. Barbierek adimen urriko alaba bat zeukan, eta zentroaren bultzatzaile gogotsuena izan zen. Sortu zenean, zentroak 22 ikasgela zeuzkan; 1976an 257 ikaslek egin zuten matrikula, eta beste 67 barnetegi erregimenean zeuden. Hasieran arazo arinak edo tartekoak zeuzkaten haurrei zuzenduta zegoen, eta Burgos, Andaluzia eta beste leku batzuetako maistrek etorri behar izan zuten, hemengoak behar baino gutxiago zirelako. Lehen hautaketara 600 haurretik gora aurkeztu ziren, gurasoentzat itzelezko esperantza baitzen haurra zentro horretan eskolatzea.

Gaur egun Ikastetxe itundua da, adimen-atzerapena, autismoa edo Down sindromea duten 5-20 urte bitarteko haurrentzako (45 ikasle daude). Klaseak 10:00etatik 17:00etara ematen dira.

Zentroa teknika eta baliabide aurreratuez horniturik dago: Pedagogia Terapeutikoko 15 gela ditu; bi Logopediako kabinete, norbanakoaren mintzamen-arazoak tratatzeko; entzumen eta hizkuntza ikasgela; Lan Ikaskuntzarako gela; Helduarorako Iragaita Ikasgela; 7 ikasgela lan aurreko zereginetan trebatzeko; kirol instalazio zabalak eta Etika eta Erljio Prestakuntzarako Ikasgela. Bestalde, barnetegi-egoitza terapeutiko bat dauka, BBK-k diruz lagundua, psikiatria arazo larriak (autismoa, psikosia, nortasun arazoak, etab) edo izaera edo portaera arazo latzak dituzten haurrentzat; era berean, zerbitzu horri esker, egoera familiar edo sozial gordina bizi duten adimen urriko hurrek (neska nahiz mutil) egonaldiak egin ditzakete bertan, aldi baterakoak zein iraunkorrak.

Aipatzekoak dira, halaber, bertako diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuak, biak doakoak. Adimen urrikoak izan edo ez, haur eta nerabeei (neska nahiz mutil) kontsulta anbulatorioak eskaintzen zaizkie, adin tarte horietako arazo psikiko eta pedagogiko guztiak tratatzeko:

- Bilakaera- eta garapen-arazoak.
- Heldutasun-arazoak eta bestelakoak (esfinterren kontrola, elikadura, loa...).
- Portaera- eta jokabide-arazoak.
- Nortasun-arazoak, psikosia, neurosia, fobiak...
- Egokitzeko arazoak.
- Ikasteko arazo zehatzak, eskolako zailtasunak...

Zerbitzu horiek guztiak leku zabal eta argitsuetan eskaintzen dira, inguru natural eta egoki batean.

Diagnostiko-zerbitzuak 7000 kontsulta ireki baino gehiagoko datuak bildu ditu hainbat urtetan, baina hori guztia galdu egin liteke zentroa ixten denean. Uste dugu oso informazio interesgarria eta lagungarria dela, eta horregatik zaindu eta aztertu egin beharko litzatekeela, urte hauetan jaiotza-tasak izandako bilakaera ezagutzeko, adimen urriko haurren kasuan

amaren adinak zenbaterainoko eragina duen jakiteko... (nabarmentzekoa da, hain zuzen ere, medikuntzan diagnostiko goiztiarra hasi zenetik 35 urtetik gorako amen artean ia ez dela egon Down sindromedun haurra izan duenik).

Berririo atzera begiratuta, 70eko hamarkadan —1973an zehazki— Elkartearen zerbitzuak deszentralizatuta geratu ziren, eta ondorioz eskualde eta herri mailako Taldeak eratu ziren, horrela bai gurasoek bai gainerako herritarrek lotura handiagoa izango baitzuten kudeaketarekin, eta tokian tokiko adimen urrikoek artapen zuzenagoa jasoko zuten. Berrantolaketa-  
ren emaitza dira ondoko herri edo eskualdeotako Taldeak: Barakaldo, Basauri, Durangaldea, Enkartzioak, Erandio, Galdakao, Getxo, Gernika eta Bermeo (Busturialdeko Taldea), Lekeitio, Ondarroa, Markina (Lea-Artibaiko Taldea), Mungialdea, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Arratia eta Meatzeta.

Talde bakoitzak bere bulegoa eta zerbitzuak ditu (Hezkuntza Bereziko Haurtzaindegiak, Lanerako Tailerrak, Ikastetxeak, Lanaren bidezko Terapiarako ikasgelak, Eskualdeko Klubak, Kanpamenduak...). Sarri askotan, asti taldeak elizan egoten dira, eta Taldeak zein Zerbitzuak Bizkaiko Atzeratuen aldeko Elkartearen menpekoak dira. Hirurogeita hamarrek hamar-kadan, mota desberdinetako elkarteek 38 Hezkuntza Bereziko Zentro zeuzkaten Bizkaian.

80ko hamarkadaz geroztik, Zentro Bereziak desagertuz joan dira poli-ki-poliki, haur horiek ikastetxe arruntetan integratzeko prozesuak aurrera egin ahala, eta gaur egun bakan batzuk baino ez dira gertazen: Ola, Asbide, Abadiñoako Sakonen Zentroa...

### 3. HEZKUNTZA-LAGUNTZA 1982-TIK GAUR EGUN ARTE

Lehen esan dudan bezala Espainian eta Euskal Herrian, eskola-integrat-  
ziorako lehen saioak 1982an egin ziren, baina prozesu berri hori ez zen guztiz zabaldu 1985era arte. Aldaketa eragin zuten pizgarriak gizarte, poli-  
tika eta kultur eremuetatik zetozen: normalizazioaren printzipioa, bereziki  
Europako iparraldeko adituek taxutua; erakundeen irudian izandako eral-  
daketak; ikerketa zientifikoak; guraso askoren jarrera, zalantzan jartzen  
baitzitzuten beren seme-alabak bazterturik izateko arrazoiak; giza eskubi-  
deak babestu nahia... Dena den, hemengo esperientzia Europako beste her-  
rialdeetan eta EBetan egindakoarekin alderatuz gero, argi ikusten da gure-  
an prozesua berandu abiatu zela, *Hezkuntza Berezia Antolatzeko  
334/1985 Errege Dekretuarekin*, hain zuzen ere (85-3-16ko EAO). Hez-  
kuntza Berezia behin betiko antolatu nahian, Dekretuak minusbaliatuen eta  
moldatu gabeen hezkuntza-beharrak ere hartu zituen bere eragin-eremuan.  
Hona hemen dekretu horren nondik norakoak (Sola Martínez eta López  
Urquizar, 2000,76):

- Ikastetxe arruntak hezkuntza-prozesua bultzatzeko eta errazteko baliabideez hornituko ziren.
- Bazterketa eragozteko, ikasle minusbaliatuei eskola-integrazioa erraztuz.
- Hezkuntza Berezirako zentroak aurreikusten ziren.
- Ikastetxe Arruntan eta Hezkuntza Berezikoen arteko koordinazioa bultzatuko zen.
- Hezkuntza Berezia Hezkuntza-sistemaren alderdi edo zati da.
- Aparteko ahaleginak egingo ziren heziketa prozesua kalitatekoa eta norberari egokitua izan zedin.

Aipagarria da EDak erabiltzen duen Hezkuntza Bereziaren kontzeptua: «*eskolatik eman beharreko erantzuna [da]; haren tresna diren laguntzei eta egokitzapenei esker; hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleek sistema orokorraren baitan garatu ahal izango dute beren heziketa prozesua*» (Hernández Sánchez, 1993: 279).

Errege Dekretu horrek aldaketa prozesu sakon bat abiatu zuen Espainiako Hezkuntzan. Batetik, beraren oinarriko printzipioak dira Normalizazioa, Integrazioa, Sektorizazioa eta Norbanakoari egokitzea; bestetik, integrazio-entseguak egitea aurreikusten du prest agertzen diren zentroetan. Integrazio-asmo horren haritik, eta kasuan kasuko ezaugarriak aztertuta, hezkuntza bereziko ikasleek bazuten aukera —harrezkero— prozesuan parte hartzen zuten ikastetxe arruntetara aldatzeko, haietan «berariazko heziketa» jasotzeko. HLOren aginduak, bada, Dekretu horrekin gauzatzen hasi ziren, zeren hortik aurrera Hezkuntza Berezia Hezkuntza-sistemaren zati izango baitzen benetan.

Dekretuaren ildotik, «HZM Lurraldean» (*Territorio MEC*) abian jarri ziren Hezkuntza Ministerioaren Integrazio Programak (1985-1989). Zenbait tokitan, alabaina, entseguren bat egina zuten lehendik, 1982tik hain zuzen.

Garai horretakoak dira, bestek beste, ondoko arau hauek, gehienak legeak garatzeko tresnak:

- 2273/1985 Errege Dekretua** (1986-5-21eko EAO), Minusbaliatuak Enplegatze Zentro Bereziak arautzen dituena.
- 969/1986 Errege Dekretua** (1986-5-21eko EAO), Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa sortu zuena.
- 1/1990 Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerakoa.**
- 1007/1991 Errege Dekretua** (1991-8-1eko EAO), DBHrako gutxieneko edukiak zehaztu zituena.
- 1345/1991 Errege Dekretua** (91-9-13ko EAO);
- 1257/1993 Ministro Agindua** (93-1-19ko EAO)
- 696/1995 Errege Dekretua** (95-6-2ko EAO),



- 1996ko otsailaren 14ko Agindua* (96-5-17ko EAO)
- 1999ko martxoaren 22ko Agindua* (99-4-10eko EAO),
- 1999ko maiatzaren 20ko Ebazpena* (1999-6-3ko EAO)
- Minusbaliatuentzako Ekimenen Plana, 1997-2002*: 1996an onartu zen, Gizarte Gaietarako Batzordean, Lan eta Gizarte Gaietarako ministroak eta autonomia erkidegoetako alorreko kontseilariak parte hartuta (IMSERSO,1997).

Plana «oinarri erkideen multzo bat zen, minusbaliatuentzako politika integralei begirakoa», «laurogeita hamarreko hamarkadarako estrategia bat» (IMSERSO,1997:20). Zehaztu nahi ziren, orobat, edozein politika integralek eduki beharreko ezaugarriak eta gutxieneko edukiak.

Planak 65 urtetik beherako minusbaliatuak edota elbarrituak ditu xede nagusi —ez, ordea, bakarra—, adin horretatik gorakoek hirugarren adinakoentzako zentro eta zerbitzuetatik jasotzen baitute laguntza.

**Euskal Autonomia Erkidegoan**, hezkuntza-eskumenen eskualdatzeak (1980) **Hezkuntza Bereziko Plana** garatzea ekarri zuen berekin (1982). MIGILek (Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko Legea) eta Warnock txostenak agerian utzi zuten eskola eraldatzeko beharra, «Euskadiko haur guztientzako den eskola bat eraikitze aldera»; horren haritik, eskubide kolektibotzat aldarrikatu zen ikasle orori aitortzen zaiena, alegia, ikastetxe arrunt batean ikasteko eta parte hartzeko eskubidea. Hortaz, Euskadiko hezkuntza-sare osoak bere egin zuen ikasle guztiak eskolatzeko konpromisoa.

Euskadin Hezkuntza Bereziko Plana bilakatu ahala (1982-87), ikastetxe arruntak irekiz joan ziren guztientzat. Hezkuntza bereziaren beharrak betetzeko, Planak printzipio gisa hartzen ditu Integrazioa, Arlokako Zerbitzuak (Erkidegoko ikastetxe guztiak integrazioarako zentro izan daitezke) eta Normalizazioa; ez da aipatzen, ordea, norberarentzako egokitzapena. Bai Planak bai MIGILEk *gizarteratzea* dute gidalerro: horren arabera, gizabanakoak elkarren desberdinak dira, taldeen artean gertatzen den bezalaxe, eta desberdintasun horiek aberasgarriak dira denontzat.

Hezkuntza Bereziko Planaren ondorioz, bai ikastetxeetan eta bai Barruti-zonaldeetan lehenbiziko laguntza egiturak sortu ziren, eta hartutako neurri zehatzetako bat Lurralde bakoitzean Hezkuntza Berezirako Koordinazio Zentro bat eratzea izan zen. Horrekin batera eskola egokitzeko prozesuari ekin zitzaion, irakasleen prestakuntza eta laguntza-baliabide psikopedagogikoak lehenetsiz (barruti guztietan Diziplinarteko Laguntza Taldeak azaldu ziren).

Ikastetxeetan Hezkuntza Berezirako Ikasgelak antolatu ziren, hezkuntza bereziko ikasleei zuzenduak eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleen ardurapean. Ikasgela horiek integrazioarako tresna izan behar zuten, eta ez bereizketarako; beraz, ikasleek ahalik eta denbora laburrena emango zuten haietan.

Ikaslearen beharretara moldatuz, Laguntza Zerbitzuetatik Norbanakoarentzako Garapen Programak prestatzen ziren, norbanakoei berariazko erantzuna eman ahal izateko. Hala ere, artean ez zen kontuan hartzen ikasgela arrunten curriculum programa horiek zertzeko abiapuntutzat, bai ordea ikusmen arazoak zituzten ikasleentzat eta, kasu batzuetan, entzumen akatsak zituztenen kasuan.

Hasieran dinamika bikoitzari heldu zitzaion, alde batetik talde arruntetarako integrazio lana egiten baitzen, irakasle espezifikoen esku, eta aldi berean ikasle bakoitzari berariazko hezkuntza eskaintzen zitzaiolako.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1982tik aurrera, Hezkuntza Bereziko Planak emandako esperientzien haritik eta Plana bera berraztertu beharrak bultzatuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Hezkuntza Berezirako Batzorde bat eratu zuen, eta 1988ko abenduan. Batzordeak «Eskola muinbakarra eta integratzailea» izeneko txostena plazaratu zuen.

Txostenak hainbat hausnarketa eta iradokizun aurkeztu zituen hezkuntza-behar bereziak zituzten ikasleei eman beharreko heziketaren inguruan. R. Mendiak (1999), Curriculum Garatzeko Erakundean Hezkuntza Behar Berezien arduraduna eta orduko gorabeherak berta-bertatik bizi izanak, idatzi du, orain gutxi, hango txosten hark planteatzen zituen ekinbideek honako printzipiook zituztela oinarri:

- Hezkuntza-helburuak berdin-berdinak dira ikasle guztientzat.
- Berariazko ahaleginak behar handiagoak dituzten eta egoera zailagoan dauden ikasleen alde.
- Beharrak aldatu egiten dira ikasle batetik bestera: behar horiek aldatuak eta elkarreaginezkoak dira, eta curriculum egokiarazten dute.
- Egoeraren arabera tresnak eratu behar dira kasuak aurreikusteko, zehazteko, baloratzeko eta dagokion erantzuna emateko.
- Ekinbide berriak pedagogiaren eta gizartearen ikuspegi aldarazi behar du, ikasle guztiek hezkuntza egokia jasotzeko aukera izan dezaten.
- Integrazioa ezinbestekoa da hezkuntza-prozesuan, eta bertan parte hartu behar dute hezkuntza sisteman diharduten pertsona guztiek, ez bakarrik hezkuntza-behar bereziak dituztenen irakasleek.
- Jarrerak, ikuspegiak eta jardute-ereduak aldatu beharra dago, bai ikastetxeetan eta bai komunitatearen baitan.
- Hezkuntza goiztiarra beharrezkoa da.
- Ikasleek eta haien familiarrek ere hartu behar dute parte erabakietan.
- Eskola-sistemako baliabideak garatu behar dira.
- Gizarte eta osasun zerbitzuek bat egin behar dute hezkuntza alorrekoekin, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleek laguntza egokia eduki dezaten.

#### 4. DATUAK: HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK AGERTZEN DITUZTEN IKASLEEN KOPURUAK

	Araba	Bizk	Gipuz	Guztira	%
Ikusmen Urritasuna	37	167	49	253	2.30
Entzumen urritasuna	67	180	86	333	3.03
<b>Adimen urritasuna</b>	<b>350</b>	<b>1.181</b>	<b>443</b>	<b>1.974</b>	<b>17.96</b>
Garun paralisia	102	390	137	629	5.72
Autismoa	54	458	121	633	5.76
Urritasun anitzak	78	754	64	896	8.15
Arazo emozional larriak	214	783	268	1.265	11.51
Supergai-tuak	28	23	11	62	0.56
Behin-behineko arazoak	962	2.135	1.849	4.946	45.00
	1.892	6.071	3.028	10.991	

Hezkuntza Premia Bereziko ikasleria 2005/06 ikasturtean Euskal Autonomi Erkidegoan. Informazio iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ikuskaritza Teknikoa, 15-9-2006 (Publikatu gabeko datuak).

Ikusten den bezala, kopuru nagusia adimen urritasuna duen kolektiboari dagokio. Agertzen diren datuak interpretatzeko agian aberasgarria izan daiteke 99/00 ean emandako xerrendarekin konparaketa bat egitea. Ikasturte horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuko Ikuskaritza Teknikoko Zuzendaritzatik emandako datuen arabera, hezkuntza premia bereziak agertzen diren ikasleen kopuruak, hurrengo hauek ziren (Ararteko: 2000):

Ikusmen Urritasuna: . . . . .	165
Entzumen urritasuna: . . . . .	248
Adimen urritasuna: . . . . .	1.921
Garun paralisia: . . . . .	435
Urritasun anitzak: . . . . .	478
Arazo emozional larriak: . . . . .	618
Autismoa: . . . . .	318
Supergaituak: . . . . .	62
Behin-behineko arazoak: . . . . .	1.713
Guztira: . . . . .	5.958

Adimen Urritasuna agertzen duten ikasleen kopurua antzerakoa dela ikus dezakegu, baina orokorrean asko igo dela azken urteetan hezkuntza premia bereziak agertzen dituzten ikasleen kopurua Euskal Autonomi Erkidegoan argi dago.

Kolektibo honen hezkuntza erantzuna antolatzeko ezinbestekoa da jakitea zenbat pertsona daude diagnostiko honekin.

Adimen urritasuna duten ikasleei, ebaluazio psikopedagogikoa egin ondoren, eskolaratze proposamena eskaintzen zaie. Hiru aukera dira nagusi: eskola arruntetan gela arruntean, eskola arruntetan hezkuntza bereziko ikasgeletan, edo ikastetxe berezietan eskolarizatzea (ospitale eta etxeko irakaskuntza ere errealitate bat dira). Irakaskuntza era egokienean aurrera eramán ahal izateko baliabide pertsonalak (pedagogia terapeutikako irakasleak, kontsultoreak, orientatzaileak, hezkuntza premia berezien aholkulariak, logopedak, hezkuntza laguntzako espezialistak...) eta baliabide materialak (tresna bereziak...) jarri egin dira eskoletan. Hortik aparte, curriculumaren egokitzapen curricularrak, hezkuntza errefortzuak, kurtsoen errepikapenak, salbuespenak batxilergoan, egokitutako metodologiak eta abar kontenplutzen dira hezkuntza eredu berri honetan ikasleen gaitasunen garapena handiena izan dadin.

## **5. ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ELKARTEEN ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK GAUR EGUN**

Nahiz eta hezkuntza akademikoren eremutik kanpo egon (ez dira ikastetxeak), bere eginkizuna ezagutzea oso interesgarria egiten zaigu eta ezin dugu artikulu honi bukaera eman beren zerbitzuak eta programak azaldu gabe.

### **5.1. Atzegi: Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak**

2006-12-31n Atzegik 1899 bazkide eta senide zeuzkan, ondoko hauen ordezkari: 1985 adimen-atzerapendun (familia batzuetan bat baino gehiago daude), 2979 bazkide laguntzaile (diruz laguntzen diotenak Atzegiri) eta 5528 *Atzegizale*.

Guztira 10352 senidek eta laguntzailek jasotzen dute Elkarteak argitaratzen duen hiruhilabetekaria.

Zerbitzu horren jarduerak laguntza-programa desberdinak dituzte ardatz:

### **I. FAMILIEI ZUZENDUTAKO PROGRAMAK**

—LAGUNTZA SOZIALA

—LAGUNTZA GURASO BERRIEI

- LAGUNTZA ESKOLARATZEKO
- ETORKIZUNERAKO AHOLKULARITZA
- ATSEDEN PROGRAMA

## **II. GIZARTEARI ZUZENDUTAKO PROGRAMAK**

- INGURUAN
- GIZARTEAN EZAGUTARAZTEKO ETA KONTUAZ JABETZEKO

## **III. ADIMEN URRIKO PERTSONEI ZUZENDUTAKO PROGRAMAK**

- AISIRAKO ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEKO ZERBITZU SOZIALA.

- Txolarte Programa
- Boluntarioak
- Oporraldietako Programa
- Kultura, Prestakuntza eta Jolas jarduerak
- Kirol programa
- Programa berriak: Neurrian
- Elkarlanerako akordioak
- Balorazioa

- BABES FUNDAZIOA
- BAKARRIK PROGRAMA
- AUTO-KUDEATZAILE PROGRAMA
- ETXE BIZITZA ZERBITZUA
- ATZEGIK SUSTATU ETA BERAU PARTAIDE DUTEN ELKARTEEK GARATUTAKOAK

- GUREAK Taldea (Tailerrak)
- ULIAZPI Fundazioa (Egoitza leku iraunkor (213 plaza, 6 zentrotan eta eguneko etxeko lekuak)
- Euskadiko eta Espainiako FEDERAZIOAK

### **5.2. Apdema: Arabako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarteak**

2006ko abenduaren 31an datarekin, Apdema 1518 familia asoziatuek osaturik dago. Horietatik, 815 numerarioak dira eta 703 bere laguntza eskaintzen dihardutenak ditugu.

Laguntza-programa desberdinak eskaintzen dira:

## **I. ZERBITZU ASOZIATIBOAK**

- FAMILI LAGUNTZA
- BATZORDEAK ETA LAN TALDEAK
- AURRETUTORETZA ETA TUTORETZAKO FUNDAZIOA
- PRESTAKUNTZA
- ESKOLA JARRAIPENA
- AUTOKUDEATZAILEAK
- KOMUNIKAZIOA
- BESTELAKO JARDUERAK

## **II. EGOITZA-ZERBITZUAK**

- EGONALDI LABURRAK
- TALDE-ETXEA. Etxebizitza-baliabideak dira. Gehienez 12 erabiltzailerentzat dira eta iraunkorrak dira; alegia, urte osokoak. Hauetan sartu ahal izateko, erabiltzaileek eguneko jarduera izan behar dute (lana, okupazioen bat eta abar). Adimen-erizaintza duten eta «arreta handia edota etengabeko ikuskapena» behar dituzten pertsonen eskaintzen dira arreta.
- BITARTEKO TALDE-ETXEA. Etxebizitza txiki hori 4 erabiltzailerentzat da. Langileen laguntza ez da erabatekoa: gauez eta goizez ez dago laguntzailerik. Zerbitzu horrek «aldizkako arreta edota ikuskapen sarriak »eskaintzen ditu».
- LAGUNDUTAKO ETXEBIZITZA. Etxebizitza honetan gehienez 4 erabiltzaile egon daitezke. Erdi-independenteak dira eta oso laguntza txikia jasotzen dute. Autonomia pertsonaleko maila handia izan behar dute. Bizikidetzako taldea da. Eguneko bizitza beren kabuz egiteko gai dira, baina apur bat gainbegiratu behar da.
- LAGUNTZA-PROGRAMA
- BIA (BIZITZA INDEPENDIENTEAREN ALDEKO) PROGRAMA.

## **III. AISIALDIRAKO ZERBITZUAK**

- APDEMAk beste zerbitzu batzuk jartzen ditu eskura Aisialdiaren alorretan, haietako batzuk Foru Erakundearekiko hitzarmenaren bidez kudeatuak:
- AISIALDI ZENTROAK, Gasteizen eta herrialdeko beste leku batzuetan (Amurrio eta Laudio).
- OPOR PROGRAMA.

- AISIALDIKO JARDUERAK (Ludotekak, Gazte Kluba, Udalekuak eta Scout Taldeak).
- ZAHARTZE-PROGRAMA , soziokulturala, 60 urtetik gorakoentzat.
- Udako Oporraldiak eta boluntarioek lagundutako programak.
- KIROL PROGRAMA. Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin duen hitzarmenari esker, Kirol Kanpainaz arduratzen da, Apdema Kirol Taldearen bidez. Urtero BIDAIA PROGRAMA bat eskaintzen da, Imstersorekiko hitzarmenaren bitartez.

**IV. ARRETA GOIZTIARREKO** zerbitzuaren bitartez hezkuntza-eta estimulazio-jarduera ematen zaizkie beren garapenean arazoren bat izateagatik tratamendu espezifikoa behar duten 0 eta 3 urte bitarteko haur guztiei, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Sailarekin sinatutako lankidetzahitzarmenari bidez. Zerbitzuak 62 haurri eskaini die arreta 2006 urtean.

### 5.3. Gorabide: Bizkaiko adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkartea

Esan bezala, orain Gurasoen Elkartea (GORABIDE) Poza Lizentziatuaren kaleko 14-2.ean dago, eta ondoko zerbitzu hauek ematen ditu:

Egoitza Zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Egoitzak</li> <li>—Taldeentzako etxebizitzak</li> <li>—Bizimodu erdi-beregaina</li> </ul>
Eguneko Zentroak.	
Aisialdirako Zerbitzuak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Klubak</li> <li>—Udalekuak eta udako eskaintzak</li> <li>—Integrazio Programak</li> <li>—Kirolak</li> <li>—Jardueretarako lekuak</li> <li>—Asteburuetako Ateraldien Programa</li> <li>—Imstersoren Oporraldiak</li> <li>—Kultur ekintzak</li> </ul>

Laguntza Zuzeneko Zerbitzua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>—Eskualdeko Gizarte Laguntza</li> <li>—Estimulazio Goiztiarreko Programa</li> <li>—Prestakuntzarako eta Parte-hartzerako Zerbitzua</li> <li>—Guraso Berrientzako Programa</li> <li>—Eskola-adineko Programa</li> <li>—Gaztaro Programa</li> <li>—Nerabezaro Programa</li> <li>—Rett Sindromerako Programa</li> <li>—Atzeratuen neba-arrebentzako Programa</li> <li>—Elkarte Jardueretarako programa</li> <li>—Prestakuntza hitzaldiak eta mintegiak</li> <li>—Kanpoko prestakuntza hitzaldiak, mintegiak eta ikastaroak</li> <li>—Berriak aldizkaria (hilabetekaria)</li> <li>—Autobabesleen Taldeetarako Programa</li> <li>—Laguntzarako eta Hezkuntza Orientaziorako Programa</li> <li>—Zerbitzu Teknikoa</li> </ul>
Giza Baliabideen Saila.	
Gorabide Babesteko Fundazioa.	Babespekoen kopurua gaur egun: 62.

Irudia: Gorabide Guraso Elkartearen Zerbitzuak.

2006an egoitzetan 164 pertsona bizi ziren, errezydentzia txikietan-etxebizitzetan 96, eta bizitza erdi independentean 9. etxebizitzetan 105, eguneko zerbitzuko erabiltzaileak 158 dira, aisialdiko zerbitzuak erabiltzen dituztenak 1920 pertsona. Atentzio goiztiarreko programak 15 pertsona jaso dituzte.

## 6. ONDORIOAK

Azkeneko 47 urteetan aldaketa ugari izan dira azaldu dugun arloan. Hasiera batean populazio honentzat ez zegoen zentro espezifikorik eta lehenengo etapa batetan horretarako propio hainbat zentro zabaldu ziren. Bigarren etapa batean zentro hauek progresiboki ixten joan dira eta Errege Dekretu baten ondorioz adimen urritasuna duten ikasle gehienak eskola arruntetan integratu dira.

Ikastetxeetatik aparte beste zerbitzu batzuk ere antolatzen joan dira, atentzio goiztiarra, aisialdirako zerbitzuak, lantegiak, etxebizitzak... eta abar.

Artikulo honek, printzipioz, gai honen inguruko errepaso historiko bat egitea beste helbururik ez dauka eta espazio gehiena eskola-egoerari dedi-katu diogu.



Honekin lotuta badira beste zenbait gai aztertzeko, adibidez: ikasle hauek Bigarren hezkuntzara iristen direnean zailtasunak izaten dituzte ikasle arruntekin batera ikasketak jarraitzeko, eta dituzten ezaugarriak direla eta, beraien arteko taldeak egiten dituzte, lan mundurako eta bizitza heldurako prestatzen dituzten jarduerak eginez; honela, talde arruntetatik aldentzen hasten dira poliki-poliki, izan ere beste interes eta gaitasun batzuk dituzte.

Aisialdirako jarduerak ere, denbora libreko klub-ak..eta abar, beraien-tzat espezifikoki izaten jarraitzen dute (agian zabalagoak izan beharko lirateke).

Badakigu baita ere gizarte-integrazioa ez dela batere erreza izaten behin adin batetara iritsiz gero.

Bestalde frogatuta dago zahartzaroaren prozesua populazio arruntean baino azkarrago agertzen dela pertsona hauengan. Zentro bereziak (egoitzak) zabaltzea beharrezkoa ikusten da, izan ere medikuntza-aurrerakuntzei esker, bizi-itxaropena geroz eta handiagoa da.

Jasotze-data: 2007-05-02

Onartze-data: 2007-06-08

### ***Abstract***

---

*The article compiles the first educational experiments with mentally handicapped students in the Basque Country Autonomous Community. From 1960 onwards, a great many special education institutions were set up which will progressively close as the principles of school standardisation and integration are applied. This pays homage to the people who have created and contributed so much to the quality of life for a wide collective by making vast efforts with limited resources*

**Keywords:** *Education. Disabled. School. History. Basque Country.*

---

*El artículo recoge las primeras experiencias educativas con alumnos con discapacidad intelectual en la Comunidad Autónoma del País Vasco. A partir de 1960 se produce un gran impulso en la creación de instituciones educativas específicas que paulatinamente cerrarán sus puertas con la aplicación de los principios de normalización e integración escolar. Es un homenaje a las personas que con su esfuerzo y de la nada crearon y aportaron mucho a la calidad de vida de un amplio colectivo.*

**Palabras clave:** Educación. Discapacitado. Colegio. Historia. País Vasco

---

*Cet article reprend les premières expériences en matière d'éducation auprès d'élèves présentant un retard intellectuel sur la Communauté Autonome du Pays-Basque. À partir de 1960 se produit un grand pas en avant avec la création d'institutions éducatives spécifiques qui fermeront peu à peu leurs portes avec l'entrée en application des mesures de normalisation et d'intégration scolaire. Il s'agit d'un hommage rendu aux personnes qui, par leurs efforts et à partir de rien, ont créé et apporté beaucoup à la qualité de vie d'un large collectif.*

**Mots clé:** Enseignement. Handicapé. École. Histoire. Pays Basque.

---

## BIBLIOGRAFIA

- APDEMA ZUZENDARITZA BATZORDEA (1987): *Elkartearen Memoria*. 3. or.
- APDEMA (Arabako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Elkartea), (1976): *Estudio sobre la deficiencia mental en Álava*. Álava: Isasi.
- APDEMA (Arabako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Elkartea), (2006): *Jarduerei Buruzko txostena*: Alava: Gizarte Ongizaterako Foru Erkunde.
- ARARTEKO (2000): *Euskal Autonomi Erkidegoan hezkuntza premia bereziei erantzuna*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ATZEGI, (Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Elkartea), (2000): *Jarduerei Buruzko txostena*.
- ATZEGI (Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Elkartea): (2006): *Jarduerei Buruzko txostena*.
- BIZKAIKO ATZERATUEN ELKARTEAREN ALDIZKARIA (1977): Propaganda-folletoa.
- ESPINAS, P. (1971): *Els nens que sempre seran nens, contes per nois i noies*. Barcelona: Caixa de pensions per a la vallesa i d'estalbis.
- GAUR, S.C.I. (1973): *Informe Gaur; El problema de la deficiencia mental en Gipuzkoa*. Erandio: Ellacuría.
- GORABIDE (Bizkaiko adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Elkartea) (2006): *Jarduerei Buruzko txostena*.
- HERNÁNDEZ SÁNCHEZ, E. (1993): «Evolución de la Integración Educativa y planificación del futuro». In Muñoz Machado, S. et. al. *La Integración Social de los minusválidos* (275-293). Madrid: Escuela Libre Editorial.
- HUERTAS GARCÍA ALEJO, R. (1998): *Clasificar y educar. Historia natural y social de la Deficiencia mental*. Madrid: CSIC. Departamento de Historia de la Ciencia.

- IMSERSO (1997): *Plan de Acción para las Personas con Discapacidad*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Mendia, R. (1999): *Hezkuntza premia bereziari buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Sola Martínez, T. y López Urquizar, N. (coords.) : (2000): *Aspectos Didácticos y Organizativos de la Educación Especial*. Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Villa Bilbao, I. (2004): «El colegio de sordomudos y ciegos». *El Correo Español*. Pag. 10.